

Ukrainan egindako ikasketen homologazioa eskatzeko jarraibideak

1

Beherago zehazten diren agiri akademikoen jatorrizkoak eta haien euskarazko edo gaztelaniazko itzulpen ofizialak badituzula egiaztatu ondoren, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza atarira sartu (Unibertsitate kanpoko irakaskuntzako atzerriko titulu edo ikasketak homologatu eta baliozkotzea).

[Bete Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako atzerriko tituluak edo ikasketak homologatzeko eta baliozkotzeko eskaera.](#)

2

Deskargatu eskabidearen frogagiria.

Orri hori erregistroan aurkeztu beharko duzu beharrezko dokumentazio akademikoarekin batera. Aurkeztu ezik, ez duzula homologazio-espediente hasi ulertuko da. Dokumentazio guztia ez badago, Administrazioak falta dena eskatuko dizu.

3

Ebazpena aldekoa bada, abisu bat jasoko duzu egiaztagiria ikasgunea.euskadi.eus atarian eskuragarri daukazula esateko.

Aurkeztu beharreko agiri akademikoak itzulpen ofizialarekin batera:

Batxiler titulua

- ***Atestat pro zagal'nu serednyu osvitu*** (Bigarren Hezkuntza Orokor Osoaren ziurtagiria) agiriaren eta noten eranskinaren **jatorrizkoa, legeztatuta***.
- ***Svidotsvo pro bazovu zagal' un serednyu osvitu*** (Oinarrizko Bigarren Hezkuntza Orokorren ziurtagiria) agiriaren eta noten eranskinaren **jatorrizkoa, legeztatuta***, edo, bestela, ***Svidoctvo pro nepovnu zagal' nomu serednû osvitu*** (Osatugabeko Bigarren Hezkuntza Orokorren

ziurtagiria) agiriaren eta noten eranskinaren **jatorrizkoa, legeztatuta***.

- Dagokion tasa ordaindu behar du.

Batxillerreko 1. maila

Baliozkotze hori ez dago aurreikusita.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulua (DBHG)

- ***Svidotsvo pro bazovu zagal' un serednyu osvitu*** (Oinarrizko Bigarren Hezkuntza Orokorren ziurtagiria) agiriaren eta noten eranskinaren **jatorrizkoa, legeztatuta***, edo, bestela, ***Svidoctvo pro nepovnu zagal' nomu serednû osvitu*** (Osatugabeko Bigarren Hezkuntza Orokorren ziurtagiria) agiriaren eta noten eranskinaren **jatorrizkoa, legeztatuta***.
- **Bigarren Hezkuntzako 10. mailako noten ziurtagiri ofizialaren jatorrizkoa, legeztuta*** (Beharrezkoa da gradu hori gainditua izatea eta 11. mailara pasa izana).
- Aukerakoa: **7., 8. eta 9. mailako noten ziurtagiri ofizialaren jatorrizkoa, legeztatuta***. Ikasmaita horiek urteka berezita egon behar dute, azken kalifikazioa atera ahal izateko.
- Ez da derrigorrezkoa 7., 8. eta 9. mailen dagozkien ziurtagiriak aurkeztea: ikasmaita horien ziurtagiri akademikoak aurkeztu ezik, azken kalifikazioa aurkeztu gabeko ikasmaita bakoitzari 5eko nota emanda kalkulatu da. Horrela kalkulatuak kalifikazioa ezingo da aldatu homologazio-egiaztagiria eman ondoren, ezta aurrerago noten ziurtagiria aurkeztuko balitz ere.
- Horren harira, jakin behar duzu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) graduatu-tituluaren homologazioa lortzeko, gutxienez 10 urte akademiko eginda eta gaindituta eduki behar dituzula, Espainiako DBHko graduatu-titulua 10 ikasturte (Lehen Hezkuntzako 6 eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4) bete ondoren lortzen baita. Oinarrizko Bigarren Hezkuntza Orokorren ziurtagirira arte bakarrik lortu baduzu (9 urte akademikoko programa bat egin eta gainditu ondoren lortutakoa), zure ikasketak gure hezkuntza-sisteman DBHko 3. mailaren parekoak dira, eta DBHko 4. mailan matrikulatu ahal izango zara besterik egin gabe.
- Ez duzu tasarik ordaindu behar.

DBHG titulua baino beheragoko ikasketak (2.a eta 3.a)

- Hezkuntza sistemako DBHko 2. eta 3. ikasmailatan sartzeko ez da baliozkotzerik egin behar.

*Ukrainak bizi duen salbuespeneko egoeraren ondorioz, gaur egun herrialde horretako agiri akademikoak Madrilera Ukrainako Enbaxadan eta Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioan (MAEC) legeztatu daitezke. Agiri akademikoen legeztapena hasteko [Madrileko Ukrainako Enbaxadarekin](#) jar zaitezke harremanetan. Behin Enbaxadak legeztatuta, [MAECen](#) aurkeztu behar dituzu agiriok bertan legeztapena osatzeko.